

GR98a Urdaibaiko Biosfera Erreserbari bira ematen dion mendiko ibilbide luzea (GR, *Grande randonnée*) da. Babestutako eremu honen mugetatik markatutako ibilbideak bertako paisaia, natura eta kultura ondarea ezagutzeko aukera ematen digu. 5 etapatan banatuta dago eta honetan Gernika eta Bermeo arteko etaparen zati handi bat egiteko aukera izango dugu.

Gernikatik abiatu eta itsasadarraren kanal alboan eraikitako ibilbideetik Muruetako puntaraino helduko gara lehenik eta bidean Urbietatik pasatuko gara. Izenak berak adierazten duen bezala Oka eta Golake ibaien urek bat egiten dute puntu honetan.

Muruetako puntatik Muruetako teiltategirantz jarraituko dugu eta kontu handiz ibiliko gara hezetasan handiko egunetan irrist egin gabe.

1892.urtean eraiki zuten teiltategi bitxi hau paduraren bihotzean. Bertan teilak eta adreiluak egiten zituzten eta horretarako inguruko materialiaz baliatzen ziren. Ederra da bazter honek eskaintzen digun ikuspegi.

Teiltategitik gora jarraituko dugu, iparralderantz, Malloa auzorantz.

Malloan errepide alboko bidegorrira irtengo gara San Kristobalera heltzeko. Ermita alboko zubia zeharkatu eta Axpe aldera jarraituko dugu. Bidean Madariaga dorretxe albotik igaroko gara. Merezi du tartetxo bat hartu eta leku honen edertasunaz gozatzea.

Etxebarri alboko mahats-parrak albo batera utzi eta Etxebarriatze aurretik igaro osten Axpera jaitsiko gara.

Axpe eta Sukarrieta arteko zatia Urkitzako parajetik egingo dugu. Paduraren ikuspegi ederra eskaintzen du eremu honek, baita landazabalarena ere.

Koloniaren albotik igaro eta Sukarrietara helduko gara. Pantalenetik Sukarrieta inguratu eta Portuondorantz jarraituko dugu. Herri-bide zahar batek zeharkatzen du kanpinga, jarraian begiratokira heltzeko.


Estuarioaren ikuspegi ederra dago Portuondotik. Errepide alboko espaloitik Mundakara helduko gara. Ederra da Mundakako portua eta ederra Santa Katalinako muturra ere. Hurbil zaitez eta goza ezazu!

## FITXA TEKNIKOAK

15,3  
km  
LUZERA

50  
m  
MALDA

GR 98



## PAISAIA, NATURA ETA KULTURA

Urdaibaiko historia duela milioika urte hasi zen sakonera txikiko itsasoaren azpian. Bertan pilatutako sedimentuen geruzak gure historiako liburuaren parte dira. Paisaiaz, naturaz eta kulturaz hitz egiten duen liburuaren parte.

70.hamarkadako proiektu batzuk kolokan jarri zuten eskualde honen etorkizun jasagarria. Urte gutxi batzuk geroago paisaia, natura eta kultura aberastasun handiko eskualde hau babesteko beharra ikusi zuten.

1984an Uneskok Biosfera Erreserba izendatu zuen Urdaibai eta handik 5 urtera, 1989an, Eusko Jaurlaritzak Urdaibaiko ekosistemak babesteko legea onartu zuen.

22.000 ha-ko naturgune honen ondare aberatsa 22 udalerritan sakabanatzen da. Ezagutu ezazu!



## EKOETXEA URDAIBAI

Busturiko Madariaga dorretxea Euskadiko Biodibertsitate Zentroaren egoitza da. Ekoetxea Urdaibai izenez ezaguna da eta bertan Biodibertsitatea zer den eta bere funtzioak zeintzuk diren erakusten dituzte.

Urdaibai Euskal Herrian ekosistema aniztasun handiena erakusten duen babestutako eremua da. Aipagarriak dira padura, kostaldeko landak eta labarrak, hondartza edo hareatzak, artadiak, erreka ertzeko basoak eta landazabala, besteak beste.

Badirudi Madariaga dorretxea XV. mendean eraiki zutela. Alboan duen jauregia, berriz, XVII. mendekoa da eta erloju-torre bitxia 1851n eraiki zuten auzotar batek Busturiarrentzako.



ikurrak

- |  |                  |  |                      |  |                         |
|--|------------------|--|----------------------|--|-------------------------|
|  | Abiapuntua       |  | Natura2000sarea      |  | Dorretxea               |
|  | Helmuga          |  | Ikuspegi panoramikoa |  | Naturgune interesgarria |
|  | Garraio publikoa |  | Atsedengunea         |  | Geologia Interesgunea   |
|  | Turismo bulegoa  |  | Iturria              |  | Hegaztien behaketa      |
|  | Aparkalekua      |  | Eliza                |  | Teilategia              |
|  | Taberna          |  | Ermita               |  |                         |

GERNIKA-LUMO

- 
- 
- 
- 
- 
- 

Urbietta

OKA

FORUA

- 
- 
- 
- 
- 
- 

MURUETA

- 
- 
- 
- 
- 
- 


Murutako teilategia

Murutako punta

GERNIKAKO ITSASADARRA

SAN KRISTOBAL

- 
- 
- 
- 
- 
- 



Ikuspegia Muruetako teilategitik

ALTAMIRA

San Bartolome

AXPE

SUKARRIETA

MUNDAKA

Madariaga

- 
- 
- 
- 
- 
- 

- 
- 
- 
- 
- 
- 

- 
- 
- 
- 
- 
- 

SAN KRISTOBAL

- 
- 
- 
- 
- 
- 

Padura

Urkitz

San Antonio

Txatxarramendi

Laida

San Kristobal haretza

